

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****ETXEPARE**

1. Bidaia poltsak: zinema eta literatura	2
2. Kultur jarduerak	4
3. Literatura itzulpengintza	5
4. Sortzaileen mugikortasuna	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bidaia poltsak: zinema eta literatura

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 19koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2024an euskararen eremu geografikotik kanpo zinema- eta literatura-arloko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko bidaia-poltsetarako dirulaguntzen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa, argitaratzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402119e.shtml>

(EHAA: zk. 87, 2024-maiatzak-6)

<https://www.euskadi.eus/web01->

[tramite/es/contenidos/informacion_publica/bidaia_poltsak_jakinaraztea_24/eu_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-tramite/es/contenidos/informacion_publica/bidaia_poltsak_jakinaraztea_24/eu_def/index.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da euskararen eremu geografikotik kanpo zinema eta literaturaren arloko sortzaileak eta eragileak nazioarteratzeko bidaia poltsetarako dirulaguntzak emateko modua arautzea. Zehatzago, honakoak lagundu nahi dira, aipatutako bi arloetan:

Zinema: zinema alorreko agenteak (zuzendaria, aktoreak, ekoizleak, gidoigileak), nazioarteko zinemaldietako programazio ofizialetan parte har dezaten, horietan beren film luzeren bat aurkeztu edo ordezkatzeko hautatuak izan direnean.

Literatura: literatura sektoreko agenteak (idazle, ilustratzaile, itzultzaile edo editore) literatura alorreko nazioarte mailako ekitaldietan parte har dezaten, libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkaritza gisa doazenean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

*Lortutako emaitzak: 26 proiektu diruz lagundu ziren, baldintzak betetzen zituzten 31 eskaeren artean. Beste 5 eskaerak ez zuten laguntzarik jaso.

*Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiaren 30.000 euroko aurrekontua zegoen, 22.000 euroko diru eskaera egin zuten eskatzaileek, eta horietatik 17.747,9 banatu ziren.

*Eragina gizartean: Hainbat euskal pelikula eta liburu Euskaditik kanpo aurkeztu ahal izan ziren hainbat jaialdi eta topaketetan, euskal zuzendari eta idazleen aurkezpenekin, eta honek euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa eman eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabaltzen lagundu zuen.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurrekontu-betearazpena	%100	%60
Lagundutako bidaia poltsak	40/45	26



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultur jarduerak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 3koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2024an euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi-asmorik gabeko jarduerak euskararen eremu geografikotik kanpo garatzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402978e.pdf>

(EHAA: zk. 120, 2024-ekainak-20)

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_2529108/eu_def/adjuntos/AT-KULTUR-JARDUERAK-ebazpena-resolucion.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da, euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi asmorik gabeko jarduera eta proiektuak 2024. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo burutzeko dirulaguntzak emateko modua

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

*Lortutako emaitzak: 14 proiektu diruz lagundu ziren, baldintzak betetzen zituzten 16 eskaeren artean. Beste 8 eskaerak ez zituzten baldintzak betetzen. Denera, 8 abesbatza eta 6 euskal dantza taldek laguntza jaso zuten nazioarteko jaialdi eta ekitaldietan parte hartu ahal izateko.

*Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiaren 30.000 euroko aurrekontua, osorik banatu zen.

*Eragina gizartean: irabazi asmorik gabeko hainbat kultur proiektu Euskaditik kanpo gauzatu ahal izan ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.

*Desberdintasunak ezabatzeko neurriak: Genero irizpideak 10p balioa du balorazio irizpideetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurrekontu-betearazpena	%100	%100
Lagundutako proiektuak	14/15	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Literatura itzulpengintza

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 24koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2024an literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402892e.shtml>

(EHAA: 116 zk, 2024-ekaina-14)

https://www.euskadi.eus/contenidos/anuncio_tablon/res_2518171/eu_def/adjuntos/2024_-ltzul-ebazpena-elebi.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da 2024an itzulpen jarduera hauek diruz laguntzeko baldintzak arautzen dituen Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzea:

- a) Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura obrak edozein hizkuntzatarara itzultzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura obrak euskara ez den beste edozein hizkuntzatarara itzultzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak: 23 proiektuk lagundu ziren diruz, baldintzak 9 lagundu gabe gelditu zirelarik. 23 proiektu horietatik, 22 euskarazko 22 literatura lan eta gaztelaniazko bat itzuli dira beste hizkuntza batetara.

- Aurrekontuaren gauzatzea: deialdiaren 63.000 euroko aurrekontua, osorik banatu zen.

- Eragina gizartean: aipatu euskal literaturako lanak beste hizkuntza batzuetara itzuli eta nazioarteko beste horrenbeste herrialdetan argitaratu ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.

irabazi asmorik gabeko hainbat kultur proiektu Euskaditik kanpo gauzatu ahal izan ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Proiektu-betearazpena	%100	%100
Lagundutako itzulpen-proiektuak	15/20	23
Lagundutako euskarazko proiektuak	5/10	22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Sortzaileen mugikortasuna

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita, 2024an euskal kultura kanpoan zabaltzeko, arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401977e.shtml>

(EHAA: zk. 81, 2024-apirila-24)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da, euskal kultura 2024. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zabaltzeko, arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako baldintzak arautzen dituen deialdia argitaratzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Lortutako emaitzak:

*Musikan, 44 proiektu lagundu ziren diruz, guztira, nazioarteko 282 emanaldi barne hartu zituztenak

*Arte plastiko eta ikusizkoetan, 37 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 55 ekintza barne hartu zituztenak

*Dantzan, 14 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 120 emanaldi barne hartu zituztenak

*Antzerkian, 44 proiektu lagundu ziren, nazioarteko 398 emanaldi barne hartu zituztenak

- Aurrekontuaren gauzatzea: 455.000 euroko aurrekontutik 419.427,61 euro banatu ziren.

- Eragina gizartean: Aurrez aipatu hainbat kultur proiektu Euskaditik kanpo gauzatu ahal izan ziren, euskara eta euskal kulturari nazioarteko prestigioa emanez eta Euskadiren irudi positiboa munduan zabalduz.

- Desberdintasunak ezabatzeko neurriak: Genero irizpideak 10p balioa du balorazio irizpideetan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurrekontu-betearazpena	%100	%92
Lagundutako proiektuak (4 diziplinatan)	150	139